


# **Ponentzia politikoa**

---



**hamar urte  
baino ez.**

**ehildu**



<b>0. Sar hitza .....</b>	<b>3</b>
<b>1. Egoeraren azterketa .....</b>	<b>4</b>
1.1. Anabasa planetarioa .....	4
1.2. Euskal Herria zurrumbiloaren erdian .....	5
1.3. 78ko erregimenaren krisia .....	7
<b>2. Euskal Errepublika ortzimugan.....</b>	<b>8</b>
<b>3. Begirada hamarraldi historiko honetan pausatuz .....</b>	<b>11</b>
<b>4. Burujabetze prozesuaren kartografia: oinarri estrategikoen dekalogo.....</b>	<b>14</b>
<b>5. Burujabetzarako trantsizioa.....</b>	<b>19</b>
5.1. Joko taktikoa herri-prozesu autozentratuaren mesedera .....	20
5.2. Aliantza-politika .....	21
<b>6. Azken hitza .....</b>	<b>22</b>

# 0. Sar hitza

---

Hamarraldi bat igaro da ezkerreko soberanismoaren espazio politikoa artikulatzen hasi ginela. Hamar urte baino ez, nahiz mende oso bat iragan dela dirudien. Gertakari historiko larriek zedarritutako hamarraldia izan da: ETaren amaierak eta krisi ekonomiko-finantzarioak eman zioten hasiera; eta mundua astindu duen COVID-19aren agerpenak jarri dio amaiera. Epealdi horretan artikulatu da Euskal Herrian, hain zuzen, lehenago fragmentatua zegoen ezkerreko soberanismoa. Lortu Arte eta Euskal Herria Ezkerretik akordio estrategikoen bitartez Bildu jaio zen lehenik, Amaiur osatu ondoren eta EH Bildu sortu eta garatu azkenik.

Gora-beheratsua baina emankorra izan den bideak aro berri baten atarian utzi gaitu. Termino historiko globaletan erabakigarria izango den hamarraldi baten hasieran, geure bizitzak hankaz gora jarri eta gizarte-antolamendu neoliberalaren zaugarritasuna frogatu duen pandemiaren erdian; zibilizazio krisiaren potentzial suntsitzailea inoiz ez bezala hauteman dugun ziurgabetasun handiko garaian.

Kongresu-aldiak lau urtekoak direnez gero, ponentzia honek datozen lau urteetarako ildo politikoaren gako nagusiak eskaini asmo ditu. Alta, hamarraldi aldaketak aro berri batean murgildu gaituelarik, komenigarria deritzogu argi luzeak piztea, eta gutxienez, hamarraldi osoko epealdia aintzat hartzea. Azkenik, badago hirugarren tenporalitate bat ere ponentzia honek aintzat hartu behar duena: 2023-24ko ziklo elektoralak mugari gisa finkatuz, bidea ireki behar du EH Bilduk erronka politiko horri anbizioz hel diezaion.

Ondoko lerroetan EH Bilduren hiru dokumentu estrategikori egiten zaie erreferentzia: Ezkerreko soberanismoaren herri-egitasmoaren oinarriak jasotzen dituen “EH 2030, Merezi Duzun Herria” proposamena (kongresu-prozesu honetan aurkezten duguna), gure udalgintza ereduaren oinarri teorikoak definitzen dituen “Bizitzak eta lurraldeak ehuntzeko udalgintza herrigilea”, eta “Autonomiatik subirautzara, estatus berri baterako oinarriak” proposamen politikoa.

Lehen atalak egoeraren azterketa jasotzen du; bigarrenak proiektu politiko estrategikoa kokatu; hirugarrenak fase politikoa ezaugarritu; laugarrenak estrategiaz dihardu eta bosgarrenak taktikaz.

# 1. Egoeraren azterketa

---

Argazkia lausoa eta mugitua da, ezen egoera guztiz aldakorra eta ezegonkorra baita. Lehen begiradak ez du lasaitasunerako betarik eskaintzen. Argi-ilunak agertzea guztiz logikoa da, egoeraren azterketak etorkizuneko erronkei ekiteko gure ahalmenen maila erakutsi behar duelako. Baina oraingoan kezkatu egoteko arrazoiak izan badirela deritzogu. Kezka horiekin batera, noski, argi dakusagu herri honek baduela ahalmena eta erresilientzia-gaitasuna etorkizun hurbilean agertzen diren erronkei heltzeko.

## 1.1 Anabasa planetarioa

COVID-19ak eragindako krisia ofentsiba neoliberal globalak eragindako krisi sistemikoaren markoan irakurri behar da: krisi sistemiko globalaren bizkortze une bat bizi dugu, zeinak bizitza bera arriskuan jartzen duen mehatxua dakarren: kolapso ekologikora eraman gaitzake, zaintzen krisi sakona agerian utzi du, gehiengo sozialen bizi-baldintzak prekarizatu ditu; azken batean, zalantzan jarri du gaurko antolamendu ekonomiko, sozial eta kulturalaren jarraikortasuna.

Krisia hain da sakona, kapitalismoaren eta, bereziki, neoliberalismoaren dogma batzuk kolokan jarri direla lehen aldiz denbora luzean; hala nola merkatu-askatasuna, etengabeko hazkunde ekonomikoa edo sektore publikoaren pribatizazioa bera. Ondorioz, sistema berrasmutzen eta birkokatzen ari da, jada baliozkoak ez diren eredu batzuk aldatuz. Zentzu horretan, ezegonkortasun sozialaren eta klima larrialdiaren testuinguruan, kapitalismo berdea deritzanak hanpatuta, birkokapena gobernu eredu autoritarioagoen eta erregresio sozialaren eskutik etor daiteke, gehiengo sozialentzat desberdintasun eta prekaritate handiagoa, ongizate maila urriagoa eta kohesio galera ekarriz.

Hamar urteko krisialdiari COVID-19ak eragindakoa gaineratu zaio, eta horrek guztiak zalantzazko egoera batera hurbildu gaitu, egunerokotasunaren eta itxaropenen erabateko kolapso batera. Eta, horren aurrean, bi pultsio politiko eta sozial azaleratzen ari dira:

1. Batetik, jendartean berdintasunaren aldeko iritzia edo unea hedatzen ari da, non erakundeei esku-hartzeko eta estaldura soziala emateko eskatzen zaien. Hala, zientziarekiko edo Estatuarekiko konfiantza berreskuratzen ari da (agian gehiegizkoa, eta batzuetan akritikoa), Modernotasunaren instituzio horiek ongizatearen eta segurtasunaren bernetzat jotz.

2. Hausturako eta asperraldiko erreakzio bat, azken fase honetan bereziki eskuin alternatiboak artikulatu duena, modu erreakzionarioan eta ethos indibidualista neoliberalari jarraikiz, baina guztiaren aurkako diskurtso batekin, beste sektore batzuk erakartzen dituena.

Bi erantzunek osagai nostalgikoak dauzkate, krisian dagoen iragan bat berreskuratzeko irrikak diren heinean. Jendarteak bizi duen berdintasunaren aldeko une horri erantzutea da erronka, etorkizuneko ortzi-muga edo helburu bat sortuz aldaketa progresista eta demokratizatzaile batean oinarrituta.

Bidegurutze historiko batean gaude, arrisku eta ziurgabetasun handiko garaian, baina baita aukera berrien aurrean ere. Izan ere, globalizazio kapitalistak eragindako krisiaz kontzientzia hartzeak eta dogma neoliberal funtsezkoen erorketak sakoneko eraldaketa baten premia azaleratu dute. Arrakala bat, beraz, errotiko aldaketa, sozial, ekonomiko eta politikoen beharra mahaigaineratzen duena. Hortxe ezkerren aukera..

## **1.2 Euskal Herria zurrumbiloaren erdian**

Bergauza esan daiteke gure herriaren egoera aztertzerakoan ere: Ziurgabetasuna da faktore nagusietako bat, inoiz baino zailagoa baita irekiko diren agertokiak aurreikustea. Autoritarismoa goraka doan honetan, arrisku handiko garaiak datoz herrien askapena eta eraldaketa nahi dugunontzat. Baina, aldi berean, kontra-erreforma eta agenda desdemokratizatzaileei agenda demokratizatzaileak gainezari eta kritika sistemikorako aukerak biderkatzen dituen garaia da honako hau.

Irabazi tasaren beheranzko joera nabarmena da mundu guztian. Gure inguruko ekonomiei dagokienez, 1970ko hamarkadan hasitako beheraldiak indarrean darrai eta honek eragin nabarmenak ditu edozein politika proposatzerako garaian. Kapitalismoa kolapsatzen ari den honetan, baliabide publikoak eskuratzeko bidea izan daitezke iruzur fiskalari eta paradisu fiskalei aurre egitea edo fiskalitate aurrerakoia bezalako tresnak. Baina luzera begira, kapitalismoa gaindituko duten proposamenak behar ditugu herritarren ongizatea bermatuko duen proiektua aurrera atera nahi badugu. Kapitalismoak ez dakar kaosa besterik.

COVID-19ak areagotu egin ditu azken hamarraldiko erasoaldi neoliberalak eragindako krisiaren ondorio gordinak, eta agerian utzi du gizarte-antolamendu hau sozialki injustua ez ezik jasanezina ere badela. Halaber, euskal naziozintzarako ate berriak zabaldu daitezke. Azterketa orohartzailerik egiteko asmorik gabe, aipa ditzagun hainbat elementu giltzarri:

Gure garapen ereduak bizkarra ematen dio ingurumenaren zaintzari, klima larrialdiaren kaltetan: Europako batz bestekotik gora berotegi efektuko gas isurtzen dugu, energia berriztagarrien hedapena bereziki baxua izan da gurean, eta kanpoko energia zein baliabideen menpekotasuna dramatikoa da, baita elikagaiena ere. Eta, oro har, aztarna ekologikoa oso altua. Sistema produktibo ahuldua eta gutxi prestatua dugu hurrengo urteetan egin behar den trantsizioari aurre egiteko. Ezbaian jarri den hazkunde eredu bati oso lotuta dagoen garapen eredu lasta zaigu hurrengo urteetan egin beharreko eraldaketarako.

Digitalizazioaren erronkari aurre egitea ere badagokigu. Disrupzio teknologiko baten atarian gaude, zeinak arriskuak dakartzan berarekin, baina, era berean, boterea demokratizatu, jendarte ahaldundu eta harreman ekonomiko justuagoak sortzeko aukera berriak ere irekitzen dituen. Alabaina, ez dugu trantsizio digitalari begirako herri-estrategiarik, eta sektore teknologikoaren deskapitalizazio prozesu nabarmena eman da azken urteetan.

Desberdintasun sozialek inoiz ez bezalako gorakada izan dute azken urteetan, eta gure ongizate-eredua, lehendik gabezia asko zituena, huts egiten ari da, haustura sozial bat sortuz gizartearen oinarrian bertan. Lan-baldintzak prekarizatu egin dira (are gehiago kolektibo marjinatuenentzat), langabezia gora doa eta etxebizitza bezalako

oinarrizko eskubideak ez dira errespetatzen. Honetan guztian zerikusi handia dute sektore publikoan izan diren murrizketek eta pribatizazioek. Azpimarra berezia merezi du gazteen egoerak: etxebizitza edo enplegu duina eskuratzeko ezintasuna da gazteen emantzipazio prozesua zailtzen duen faktore nagusia.

Etorkizuneko erronka handienetako bat egiturazko zaintzen krisia da, COVID-19ak gogortu egin duena: Arlo publikotik erantzunik ez dagoenez, emakumeen zama geroz eta handiagoa da, eta beren gain erortzen diren zaintza lanak geroz eta prekarioago eta jasangaitzagoak. Zantzu guztien arabera, genero-arrakala areagotu egin da, eta emakumeak gehiago pobretu eta diskriminatu dira, batez ere kolektibo zaugarrienak. Halaber, behin konfinamenduan zehar etxeetan izan diren egoerak argitara atera direnean, indarkeria matxistaren eragina handitu egin dela ere ikusi dugu, adierazpen, forma eta intentsitate berriak hartuz.

Biztanleriaren zahartzea arrakasta soziala da, baina, aldi berean, erronka garrantzitsua ere bada, zeinari aurre egin beharko diogun arlo publikotik zein komunitariorik: Osasun eta zaintza duinak askatasunez eskuratzeko (beraz, familiarik kanpo kolektibizatuta) edo pentsio duinak bermatzea (batez ere emakumeentzat) dira erronka nagusietako batzuk.

Bizi dugun krisi sistemikoa nazioarteko krisi humanitarioa ere bada, Europa proiektu politiko gisa zalantzan jartzeaz gain, erronka kolosala dakarkiguna gizarte eta herri gisa. Migrazio-fluxuek gora egin dute azken urteetan, eta hala egiten jarraituko dute aurrerantzean ere, desberdintasunak oro har areagotzen ari baitira. Errealitate horren aurrean, beharrezkoa izango da giza eskubideak errespetatuko dituzten eta gizarte-kohesioa indartuko duten politika demokratikoak diseinatzea.

Etorkizun hurbilean funtsezkoa izango den beste egiturazko elementu bat da lurralde-desoreka gero eta handiagoa. Krisiaren gainerako faktore giltzarriek desoreka horren inpaktuak handituko dituztela aurreikus dezakegu, desoreka geografikoak areagotuz, zeintzuek inpaktu handia izango duten baliabide eta zerbitzuak aukeratzeko orduan. Garapen eredu neoliberalarekin lotutako prozesua da (industria, turismoa, mugikortasuna, hirigintza eta etxebizitza gurutzatzen dituen eredu jasangaitza), ingurumenean eta herri-kohesioan eragin handia duena.

Egungo hezkuntza sistema agortuta dago: iraultza pedagogikoko baten beharrak, segregazio maila handiek, hizkuntza ereduaren topeak, curriculum propio bat ez izateak eta beste hainbat hutsunek egungo ereduaren eraldatzeko premia larria mahaigaineratzen dute. XIX. mendeko eskola dugu XXI. mendeko ikasleak hezteko.

Azken hamarraldietan lehen aldiz, euskararen erabilerak beheranzko joera hartu du, aurrerapen ukaezinen ondoren. Asko dira euskalduntze prozesua agortzen ari dela adierazten duten ahotsak. Ez gure hizkuntza ez gure kulturaren transmisioa ez daude bermatuta, eta biak dira ezinbestekoak komunitate eta nazio gisa garatuko bagara.

Bestalde, jakitun gara, bere garaian idatzizkora jauzi egitearen garrantzia berbera duela, egun, euskal identitate politikoaren sortzaile nagusiak diren euskal imaginario kolektibo dinamikoaren erreferenteak pantailen bitartez transmititzea; gure herri existentzia bermatzen duten hizkuntza eta kulturaren biziraupena pantailetan jokatuko baita aurrerantzean.

Pandemiak eragindako krisiak agerian utzi du kultur ekosistemaren ahulezia, batez ere sortzaile, artista eta kultur langileen prekarietatea azaleratuz, euren lana euskaraz garatzen dutenena bereziki. Inoiz ez bezala, krisiak erakutsi du kulturak jendartean duen kohesiorako ahalmena eta edozein komunitateren garapenean duen garrantzia. Honek guztiak, ekarri du sortzaileen, artisten eta kultur langileen prekarietateari aurre egiteko eta euskal kultur ekosistema sendotzeko neurriak hartu beharra, bereziki euskaraz garatzen denean.

COVID-19aren krisiak eredu sozioekonomikoaren mugak azaleratzeaz batera, urte luzez gure erakunde nagusietan erroto diren gobernantza eredu klientelarrak eta inertzia desegokiak ere agerrarazi ditu. Halaber, kontutan izan behar dugu krisi honek indibidualismoa indartu eta gizarte-kohesioa murrizteko arriskua dakarrela, eta aldi

berean, krisian dagoen demokrazia ordezkatzaillearekiko herritarren desatxekimendua sakonduko duela. Ireki den ziklo historiko berriak, bere ziurgabetasun eta arrisku guztiekin, beste gobernantza eredu bat eskatzen du, eredu kolaboratibo bat, instituziogintza berri baten bidez pertsonak, eragileak eta herri mugimenduak lotuko dituen, eta gure praxi eta jakinduria kolektiboa katalizatuko duena, komunitate konprometitu, indartsu, kohesionatu eta bizi bat bultzatuko duena estatu burujabe, justu eta demokratiko baterantz.

Eta gure jendartean eta bizimoduan behar dugun eraldaketa sakonari aurre egiteko, erabakitzeko ahalmena behar dugu, burujabetza behar dugu. Ziklo estatutarioen bilakaerak inflexio puntua ezagutu du: autogobernuak ez betetzetik onartutakoa kentzeko intentzio argiak erakutsi ditu eskuinak batik bat, erregresio bat hasiz. Egoera iraultzeko ezinbestekoa izango zaigu taupada nazionala indartzea, aktibatzea. Nafarroa Garaira iritsi zen aldaketak eta Ipar Euskal Herrian emandako pausu inportanteek, muga guztiekin, beste zerumuga batzuk bistartzeko balio izan dute; eta EAEn ere, autonomismoak indartsu jarraitzen duen arren, pandemia garaian ikusi denez, agorpen zantzuak nabarmenak dira.

### **1.3 78ko erregimenaren krisia**

Spainiar estatuaren egiturazko krisiaren sakontzea izan da iragan hamarraldiaren gako politiko nagusietariko bat. Krisiaren tamaina, 2008ko krisi ekonomikoaren kudeaketan, ekintza armatuei amaiera emateko ETAren erabakiaren ostean edota Kataluniako prozesu independentistak sortutako ondorioetan islatu da argiki. Ez da iraganeko kontua ordea, estatuaren demokratizazioan inolako bilakaerarik ezagutu ezean, egungo egoera eta etorkizuneko ere ezaugarrituko duen gakoa baizik.

Gainera indar soberanistok espainiar estatuko gorteetan inoizko eragite ahalmen handiena dugun honetan, erregimenak bizi dituen krisi eta kontraesanek sakontzera joko dute, mehatxuzko baina aldi berean aukerazko agertokiak ere zabalduz. PSOE-UP Gobernu bera istripuztat har genezake, egoera ezegonkor eta kritiko horren seinale, elite eta estatu botereekin inoizko lerratze txikiena duena. Horrek gatazka eragiten du erregimenaren zutoinetan, ikusi besterik ez dago Bateragune auziarekin edo Kataluniako preso politikoekin izan diren mugimenduak.

Kataluniako hauteskondeek prozesu independentistaren fase berri bat zabalduko dute, zeinean Estatuaren aldetik irtenbide demokratiko bat eskaintzeko ezintasunaren aurrean, soberaniaren aldarria izaera sozialeko ahalduzko prozesu kolektiboen eta espazio demokratikoen garapenerako bitartekotzat kodifikatua izan dadin lan egingo dugun, independentismoa demokratizazio politiko eta sozialerako traktore gisa agertuz.

Lurralde ereduaren krisia momentuz apalduta, erregimenaren krisiaren beste alderdi ezegonkortzaile batzuk aktibo daude, COVID-19ak azkartu duen krisi sistemikoak baldintzatuta: gobernatzeko lehiak, eskuin muturraren presentzia instituzio eta parlamentuetan, polarizaziorako joera, autoritarismoaren eta deslegitimazio sozialaren igoera.

Frantziako Estatuak ere, ezaugarri ezberdinak dituen arren, egiturazko krisia bizi du. V. Errepublikaren eredia agortzen ari delako pertzepzioa gero eta handiagoa da. Bipartidismoa dekadentzian dago eta estatuarekiko herritarren desatxekimendua geroz eta nabarmenagoa da. Estatu botereek krisiari eman dioten erantzuna politika atzerakoi, errepresibo eta inboluzionisten bidez etorri da; eta herritarrena, bestetik, azken hamarraldietako mobilizazio eta greba handienetan ikusi dugu. COVID-19ak estatu krisia sakondu besterik ez du egin, agerian utziz erantzun baikorrek emateko duen gaitasun eza.

## 2. Euskal errepublika ortzimuga

---

Euskal Errepublika dugu helburu. Ezbairik gabe, globalizazio kapitalistaren krisiaren testuinguru honetan estatu sozial eta demokratiko baten proiektu politikoak gaurkotasan erabatekoa du. Halabeharrezko ordena berria deszentralizazioaren, birtokiratzearen, komunitate kohesionatu demokratiko autoaskien, eta hori posible egingo duen erabakimenaren (botere politikoaren) bidez baino ez daiteke-eta eraiki. Inoiz ez bezala ageri dira elkarri lotuak burujabetza eta ongizatea. Estatua bueltan da, Euskal Errepublika egitasmo politiko garaikidea da.

Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea eta lurraldetasuna defendatzen ditugu, oinarri demokratikoen eta errealismo politikoaren parametroetan oinarrituz eta aniztasuna errespetatuz. Egungo egoera abiapuntutzat hartuta, eremu politiko-administratibo bakoitzean (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa) dauden indar-harremanen ondoriozko erritmo desberdinak errespetatu eta kontuan hartzen ditugu. Hain zuzen ere, hiru eremu administratibo horietako bakoitzaren erabakitzeko eskubide integralaren aldeko apustua egiten dugu, eta, ondoren, elkarren artean konfederatzearen aldekoa, baldin eta eremu bakoitzeko herritarrek hala nahi badute. Hauxe litzateke Euskal Errepublika independentea sortzeko bidea, zehatzago esanda, euskal-nafar estatu independenteen (kon)federazioa litzatekeena.

(Kon)federazioaren aldeko gure hautua taktikoa baino gehiago ere bada. Botere politikoaren birbanaketan oinarritzen den estatu ereduaren aldekoak gara, subsidiariedade printzipioa lehenetsiz, botere politiko herritarrengana gerturatu eta demokrazian sakondu asmoz. Zentzu horretan, gehiengo sozial handien kalitatezko parte-hartzea defendatzen dugu. Gehiengo sozial horiek politika publiko nagusien deliberazioan parte aktibo izateko gai badira soilik hitz egin ahal izango dugu demokraziaz, soberania herritarrak araututakoaz, eremu politikoan zein ekonomikoan, kulturean eta sozialean. Eta horrek eskatzen du erabaki estrategikoen gainean zuzeneko demokrazia sustatzea, era askotako gobernantza eredu kooperatiboak garatuz, eta bereziki parte-hartze publikotik erauziak diren kolektiboak erdigunera ekarriz.

Euskal Herriko eraikuntza nazional demokratikoa, ezkerrekoa, ekologikoki jasangarria, ikuspuntu feministatik emantzipatzailea. Eta proiektioz internazionalista izango dena. Hots, emantzipazio prozesuaren irudi geometriko horrek alde guztiak hartzen ditu bere baitan, batak bestea baldintzatuz eta aldagaien interakzioa lortuz: lurraldea, energia, elikadura, ekologia, zaintza, gorputza, baldintza materialak eta esplotazio ekonomikoa... Beraz, interakzioa eta, borroka desberdinen artean komunean dutena artikulatzen lortzean dago gakoa.



Sektore publiko sendo baten aldekoak gara. Ekonomiaren sektore estrategikoen kontrol publikoa ezinbestekoa zaigu eredu sozioekonomiko justu eta ekitatiboa eraikitzeko. Ziklikoak diren krisi ekonomikoen abaroen artikulatzen diren erasoaldi neoliberaletan, eta ongizate sistema desegiteko gobernuen pribatizazioei aurre egiteko, ezinbestekoa zaigu sistema publiko indartsu bat. Publikotasuna birbaloratu den honetan, erregulaziotik eta aberastasunaren birbanaketatik harago, sektore publikoak rol ekintzailea betetzearen aldekoak gara, gizarte-antolamenduan oro har, eta ekonomian bereziki, esku-hartze proaktiboa garatu dezan.

Hain zuzen, ekonomia herritarren zerbitzura jarriko duten alternatiba bideragarriak eraikitzeko. Herritar guztien ongizatea dugu helburu, gizarte-bazterketak eta desberdintasun egoerak gaituz, oinarritzko beharrezkoak bermatu beharreko eskubideak direla aitortuz eta ingurumena zainduz. Honek aberastasuna banatuko duen eredu justu batera eraman behar gaitu, ekonomiaren demokratizazio erradikal bat ekarriko duen bestelako antolamendu ekonomiko baterantzko aldaketa estrukturalagoak elikatuz.

Justizia klimatikoa geure proiektuaren erdigunera ekartzeko momentua da honako hau. Euskal Errepublika nahi dugu, besteak beste, eraldaketa sozioekologikoa Euskal Herrian bururatzeko behar diren politika publikoak garatzeko, bai eta zibilizatorioa den erronka global honi herri gisa zor diogun ekarpena egin ahal izateko.

Zer produzitu, nola produzitu eta zertarako produzitu, horra hor gakoa. Egitasmo hori ondo burutzeko produkzio indar estrategikoen nazionalizazio edo sozializazioa gauzatzea beharko litzateke, eta era demokratikoan planifikatu botere publikotik (gizarte mailan zein lantegietan) beren helburuen hirutasun horren baitan.

Euskal Errepublika nahi dugu, baita ere, euskal gizartearen despatriarkalizazioan urrats sendoak emateko. Emakumeek espazio publikoaren erdigunea har dezaten gobernantza ereduak garatu eta egungo botere harremanak iraultzeko. Sistema heteropatriarkala gure gizartearen oinarrian dago, eta gainerako menderatze-moduekin lotzen eta indartzen da. Horrela, emakumeei garapen osorako beharrezkoak dituzten baldintzak bermatuz soilik egin ahal izango dugu aurrera benetan justua eta demokratikoa den gizarte baterantz. Euskal Herria feminista dugu helburu.

Herritartasun unibertsalaren kontzeptu inklusiboaren aldekoak gara, horrek esan nahi baitu pertsonak beren giza izatearen arabera eskubideen eta erantzukizunen subjektu direla. Ondorioz, ezin zaie eskubide horietako bat bera ere kendu, jatorria, arraza, sexua, etnia edo nazionalitatea direnak direla. Are, euskal herritar guztiok gara erantzuleak pertsona guztien eskubide guztiak bermatzeko orduan.

Euskara euskal herritarren hizkuntza nazionala da, eta beraz, gure naziotasunaren osagai nagusietako bat. Euskara gure kulturaren funtsezko osagaia da, eta kultur unibertsalari ekarpena egiten dio, kohesio eta integrazio sozialerako tresna izateaz gain. XXI. mendeko euskal gizartearen kulturantzatasuna errespetatuko duen pertsona eleanitzez osatutako Euskal Herri euskalduna dugu helburu; Euskal Herri euskalduna, zeinak administrazio-, politika-, enpresa- zein gizarte- eta kultura-arloetan euskara komunikazio- eta lan-hizkuntza nagusia izango duen. Bide horretan, ezinbestekoa deritzogu zazpi euskal lurraldeetan euskararen ofizialtasuna erdiesteari, baita urratsez urratz, administrazio publikotik hasita, aldaketa linguistikoiari ekiteari ere. Horrekin batera, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa eta erabilera hegemonikoa helburu izango duen hizkuntza-politika egokia sustatuko dugu. Kultura Euskal Errepublikaren habeetako bat izango da, euskara ardatz eta lehenesten duen. Kultura ulertzen dugu, ez merkatuaren legeetara makurtzen den salmentarako ekoizpen makinaria gisa, baizik herritarren ongizatea, pentsamendu kritikoa, jakinduria eta komunitatearen kohesioa bultzatzen duen ekintza humano gisa, guztion esku dagoena eta edonorentzat bere adierazpen sortzailea garatzeko eskubide gisa hartuz.

Europa sozial batean kokatzen dugu Euskal Errepublika. Estatuez gaindiko elkarlan eta elkartasun espaziotzat dugu Europa, bizitza duinak, justizia soziala eta herrien garapena egikaritzeko proiektu politikotzat, gaurko Europar Batasunetik urrun dagoena. Europa sozialaren eraikuntzak europartze berri bat ekarri beharko du, berdin arte-

koa, inoren mendekotasunik gabea, bizitza eta justizia oinarri politika kolektiboak garatzeko bideak jarriko dituen, herrien eskubideak bermatuko dituen erakundetze politiko-administratiboa oinarri duena.

Europatik haragoko herriein ere berdinen arteko harremanak nahi ditugu, internazionalismoan eta kooperazioan oinarrituak. Beraz, ustiatzaile-ustiatu logika estraktibista gailenduz, elkartasun parametroen baitako harreman ereduak eraikitzea dugu helburu.

Euskal Herriak duen gaitasuna, bere herritarren eta bertako eragile ekonomiko, sozial eta politikoen elkarlanetik sortzen da. Herri bizia gara, askotariko pertsonen osatua, herri gisa ditugun erronkei aurre egiteko beharrezkoa den ezagutza kolektiboa duena. Gaitasun eta ezagutza komunitario hori guztia aktibatu, sinergiak eraiki, eta elkartasun, konpromiso eta elkarren arteko zaintzatik euskal gizartearen zerbitzura jartzeko prozesua da hain zuzen Euskal Errepublikaren eraikuntza.

Inork ez digu eskatu, ezta eskatuko ere, mundu osorako balioko duen eredu berri bat asmatzea. Baina arduraz itzela dugu bide berriak jorratzeko, borroka-esperientzia luzea eta emankorra dugulako. Bidearen zati bat egina dugu, borondatea eta are konpromisoa gorpuzten duena. Euskal Errepublika nahi dugu esperantza-argi bat pizteko mundu distopiko honetan.

### 3. Begirada hamarraldi historiko honetan pausatuz

---

Autonomismotik burujabetzarako igarobidean gaude. Heriotza ziorra ekidin eta, tradizio politiko ezberdinek hauspoturiko susperraldiari esker, bizirik iritsi da Euskal Herria XXI. mendera. Iragan hamarraldian baldintzak metatu ditugu askapen bidean jauzi kualitatiboak emateko. Jauzi kualitatibo horien bila goaz orain.

Ez da momentumik egongo epe laburrean. Estatuak ez du bere soberaniaren haustura ekar lezakeen ezer adostuko gehiengo demokratiko zabalek gainezkutzen ez duten bitartean; eta, momentuz, konfrontazio demokratiko horretarako baldintzarik ere ez dago. Herri-prozesu autozentratu sendo baten konfigurazioa beharrezkoa da indar-harreman berriak eraikitze bidean.

Azken urteetan marko juridiko-politikoaren eztabaida (edukitzailea, burujabetza formala) mahaigaineratzen saiatu gara, eta, Erkidego Autonomoaren kasuan, horren araberrako aliantzak eta ibilbide-orriak adostera jo dugu (estatus politiko berrirako oinarri eta printzipioak, esaterako). Bide horren arrastoan segi behar dugu baina, aldi berean, eta lehenasunez, burujabetzaren zergaitiak dira sozialki landu beharrekoak.

Zein da euskal herritarren ongizatea eta eskubideen aitortza bermatzeko behar dugun gaitasun politikoa (burujabetza materiala)? Zein eskumen behar ditugu eta zer modutan kaltetzen gaitu herri eta gizarte gisa eskumen horien faltak? Pedagogia sozial honen potentzialitate guztia askatu behar dugu, euskal egitasmo nazionalaren narratiba gorpuztu, nazio egiturak sendotu eta botere metaketa helburu duen herri-estrategiaren garapenaren bidez.

Saiakera horretarako baldintza historikoak egon badaudela deritzogu. Batetik, neoliberalismoak sortu duen zibilizazio krisiaren testuinguruan burujabetzaren hautua erdigunean kokatzen delako. Bestetik, espainiar eskalako eraldaketa-taupada ahultzen ari den heinean, aldaketa-desira hori umezurtz gelditzen ari delako. Eta, azkenik, ETAREN desagertzearekin batera, tradizio eta subjektibitate desberdinen arteko elkarlana zailtzen zuten oztupo asko gaingitu direlako.

Bi hipotesi baikor eta lau helburu hamarraldi honetarako:

Egoeraren azterketan aipatu dugun bezala, momentu berezia da honako hau gizadiaren bilakaeran. Kolapso planetarioa begien aurrean dugu, eta arriskua dago eskubideen aitortzan eta askatasun demokratikoetan atzera egiteko, inboluzio autoritarioa guztiz da aukera erreala, zeina 78ko erregimenaren sektore gotorrek gorpuzten duten

espainiar estatuan. Bistan denez, kontraerreformak indar demokratizatzaileak ditu jomugan, eta bere agendako lehenetsuen artean dago ezkerreko soberanismoaren lidergoa neutralizatzea.

Baina,aldi berean, kapitalismoaren krisi sistemikoak termino aurrerakoi eta eraldatzaileetan aurrerapausu handiak emateko irekidura bat ere ekarri du, azken 40 urteetan ezagutu gabea. Irekidura horixe baliatu behar du ezkerreko soberanismoak hain zuzen ere.

Hipotesiak:

1. Posible da zentzu komun berdinzale-eraldatzaile bat (edo nahi bada, zerumuga postneoliberal) gailentzea euskal gizartean.

Ondo doitu dezagun hau: Ez gaude egoera preintsurrekzional batean. Jendeak zer galdu asko du, beldurrak gidatuko du gizartearen jokamoldea eta neoliberalismoak antropologia bat sortu du 40 urteko borroka kultural arrakastatsuen eraginez.

Hori horrela izanik ere, gaur, neoliberalismoaren muineko dogma ekonomiko nagusiak ezbaian daude orain arte ez bezala: etengabeko hazkunde ekonomikoaren paradigma, merkatuaren esku ikusezinaren mitoa, zerbitzu pribatizatuen eraginkortasunaren falazia. Inoiz ez baita hain agerikoa izan hainbeste jenderen begietara kapitalismo neoliberalari kontrajartzen zaion ordena berri baten beharra.

Bizitza duinerako euskarri publikoak eskaini eta giza-segurtasun emale izango den alternatiba berdinzale-eraldatzaile baten aldekoitasuna hegemonikoa bihurtu daiteke ondoko urteetan. Edo gutxienez, esan genezake, hegemonia lehia horrek azken hamarraldi luzeetan izan ez dituen aukerak izango dituela.

Zentzu horretan, euskarri indartsuak ditu Euskal Herriak: otzantze saiakerei arrakastaz aurre egin dien sindikalgintza; etengabe berritzen ari diren herri-mugimendu indartsu eta zabalak; mugimendu feminista eraginkorra; elkartasun sare sendoak; komunalen inguruko tradizioen sedimentazioa: guztionarekiko atxikimendu historikoa; autogobernuaren gaitasunarekiko konbentzimendua; publikoaren defentsa; tradizio kooperatibo sustraitua eta abar.

2. Euskal Herriak mobilizazio ziklo soberanista-autodeterminista europarrera gehitzeko aukerak ditu.

Zentzun komun berdinzale-eraldatzaile hori burujabetzaren errelatoarekin konektatzeko aukera errealak dauzkagu. Harreman estua baitago proiektu soberanistaren eta aipatu ordena berriaren artean. Ordena berri hori deszentralizazioaren, birtokiratzearen, komunitate kohesionatu demokratiko autoaskien, eta hori posible egingo duen erabakimenaren (botere politikoaren) bidez baino ezin baitaiteke eraiki.

Estatua bueltan da, botere politikoa lurraldetzea ezinbestekoa baita edozelako ordena alternatibo demokratikoren eraikuntzarako. Honek tradizio abertzaleen eta bestelakoen arteko bateratze aukerak areagotzen ditu, aukerak biderkatuz proiektu soberanistara hurbil dadin espainiar eskala errefusatzen ez duen jende ugari.

Eskoziak, Irlandak, Korsikak, Kataluniak ebidentzia enpirikoa eskaintzen dute: soberanismoa gai da bere burua egitasmo berdinzale-eraldatzaile gisa proiektatu eta esparru sozial zabalen atxikimendua biltzeko. Geure koordenada geopolitiko berdinetan, eta gizarte molde antzekotsuetan, soberanismoak jauzi kualitatiboak eman ditu iragan hamarraldian hegemoniaren lehian. Jauzi kualitatibo hori posible izan daiteke Euskal Herrian ere hamarraldi honetan.

Helburuak:

1. Bloke historiko aurrerakoi-errepublikazale-soberanistaren eraikuntza: Aipatu hipotesiei jarraiki, soberanismo aurrerakoia hegemonikoa bilakatzea Euskal Herrian. Hegemonia lehia hori eskubide sozialak gauzatu, jen-

dearen bizi baldintzak hobetu eta bestelako garapen eredu baterako trantsizioa azkartuko duten politikak borrokatzearekin estuki lotua dago.

2. Euskal lurraldeen arteko lankidetzaren politiko-instituzionalaren bidez lurralde-koherentsia sendotzea. Eta lankidetzaren horri esker "elkarrekin hobe" ideia hegemonikoa bilakatzea Nafarroa Garaian, Ipar Euskal Herrian zein Erkidego Autonomoan.
3. Gehiago autodeterministen operatibizazioa. Herri aitortzaren eta erabakitzearen eskubidearen instituzionalizazioaren (burujabetza formala) aldeko pulsu politikoa indartzea. Erabakitzearen eskubidea garaikidea da, demokratizazioari eta prozesu konstituziogileen aukerari lotzen zaio. Autodeterminazioaren aldarria agenda politiko eta sozialean egongo da Europa mendebaldean datozen urteetan (Eskozia, Irlanda, Katalunia). Aldarri hori euskalerriratu eta agenda sozial eta politikoaren lehen lerroan jartzea dagokigu.
4. Iragan zikloaren ondorioen konponbidea. Zehazki preso, iheslari eta deportatuen etxeratze prozesuan urrats erresolutiboak ematea. Baita ere, herri honetan eskubide urraketak jasandako biktime orori aitortza, justizia eta erreparazioarako bideak jartzea, honela memoria kolektiboak sortuz eta berriz ez gertatzeko oinarriak sustatuz.

## 4. Burujabetze prozesuaren kartografia: oinarri estrategikoen dekalogo

---

Gurea bezalako proiektu soberanista batek estrategia sendoa behar du, arnasa luzekoa, momentu eta gertakari jakinen kudeaketatik harago doana. Jar dezagun lurzoria lehenik: burujabetze prozesuaren garapenerako helduleku zurririk bada, helduleku hori, zalantzarik gabe, euskal jendartearen energiak askatzean datza, hots, geure herriaren gaitasun eratzailan (konstituentean). Herri-prozesu autozentratua\* deritzogun dinamika zentripetua unean uneko egoera eta aukeren kudeaketak eskatzen duen pragmatismo estrategikoarekin uztartu behar da, baina epizentroa beti euskal jendartean kokatuz. Euskal Bidea ekarpen estrategikoan idatzi genuenez, herria da ahalduntze kolektibo gisa irudikatzen dugun burujabetze prozesuaren subjektua.

\* Herri-prozesu autozentratua deritzogu kanpo faktoreak direnak direla garatzen den herri-eraikuntza prozesuari. Dinamika zentrifugoei gain hartzen dien indar zentripetua sortzen duen herri-prozesuari. Estatuko dinamika politikoaren mendekoa ez dena. Agenda propioa eraikiz marko kognitibo beregaina sortzen duena euskal eskalaren baitan.

Lurzoru horren gainean eraikitzen dugu gure estrategia politikoaren eraikina, honako hamar oinarrietan laburbiltzen dena.

Herri-prozesu autozentratuari dagokionez:

### 1. Herri-egitasmo nazionala: EH 2030, Merezi Duzun Herria

Euskal egitasmo nazionalaren oinarri sinboliko eta programatikoak eguneratzeko momentua da. Zibilizazio krisiaren garai historikoan murgildu gara. Desberdintasun sozial hazkorrek eta krisi klimatikoak ezaugarrituko dute hamarraldi hau. Bigarrenari dagokionez, hamarraldi honetan erabaki okerrak hartzen badira, edo are erabaki egokiak garaiz hartzen ez badira, itzulezinezko katastrofe bat gertatuko da, hurrengo belaunaldien ongizatea dramatiko baldintzatuko duena. Hamarraldi honek ebatziko du XXI. mendean gertatuko dena. Eraldatu ala kolapsatu: dilema erreala da, eta denboran atzerazina den erronka zibilizatorioa.

Soberanismoak euskal eskala garaiko erronka kolosalei erantzun baikor bat emateko funtzionala dela frogatu behar du. Horretarako, herri-egitasmo sendo bat josi behar du, narratiba berritu bat zehaztasun programatiko nahikoarekin. Arestian esan bezala, bizitza duinerako euskarri publikoak eskaini eta giza-segurtasun emale

izango den herri-egitasmo bat mahaigaineratzeko urgentzia dugu. Eskala humanoaren (pertsone) eta eskala ekologikoaren (planeta) neurriko aterpe bat, elkar-zaintzan oinarritua.

“EH 2030, Merezi Duzun Herria” deitu diogu langintza horri heltzeko oinarritzko proposamenari, zeina kongresu-prozesu honetan aurkezten den eta datozen hilabete eta urteetan nazio elkarrizketa zabal baten bidez ondu eta jantzi beharko den. Ekimen politiko honek, ezkerreko soberanismoaren proposamena ontzeaz haragoko irismena izan nahi du: EH Bilduk, nazio elkarrizketa honen bidez, euskal inteligentsia aktibatu eta saretu asmo du, datozen erronka sozial kolosalei herri gisa erantzun baikor bat eman ahal izateko baldintzak sortze aldera.

Herri-egitasmo emantzipatzaile bat orain arte egin ez den moduan gorpuzteko unea iritsi dela deritzogu, eta hori askotariko pertsona eta kolektiboen artean baino ezin daiteke egin. Halaber, ezkerreko soberanismoaren proiektu politikoa eskala nazionalean funtsatzeko EH Bairekin dugun akordio estrategikoa edukiz bete eta garatzea falta zaigu.

## **2. Molde konfederaleko herri-eraikuntza**

Hiru lurralde-eremuetako (Nafarroako Foru Komunitatea, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Euskal Hirigune Elkargoa) berezitasun eta erritmoen arabera da gure estrategia nazionala. Behetik gorako herri-eraikuntza, lurralde-eremu bakoitzeko euskal herritarren erabakimenean oinarritua. Hiru demos eta hiruen artean berdinen arteko harreman juridiko-politikoak helburu. Lau osagai ditu ibilmolde konfederalak:

- » Herri-narratiba eta agenda programatiko komuna, bakoitzaren erritmo eta berezitasunen arabera deklinatua. Merezi Duzun Herria lurralde-eremu bakoitzean deklinatu beharrekoa da, beraz.
- » Euskal Autonomia Erkidegoaren, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Hirigune Elkargoaren arteko lankidetzaren instituzionala. Zein eremutan frogatu dezakegu hobe zaigula elkarrekin? Pentsatu dezagun euskal lankidetzaren trantsizio energetikoa edota digitalizazioaren gisako prozesu disruptiboaren terminoetan, adibidez. Halaber, politika publiko zehatzen gaineko lankidetzaren instituzionalaz gain xehetasunez aztertu behar dira egitura instituzional supraautonomikoak (Euskal Euroeskualdea kasu) irekitzen dituzten aukerak.
- » Burujabetza estatusaren aldarria Nafarroa Garaian zein Erkidego Autonomoan. Erabakitzeko eskubidearen instituzionalizazioak ardatzen du burujabetza estatusa, erabakitzeko eskubidearen hiru dimentsioak hartuz kontutan (Espainiarekiko harremana erabakitzeko ahalmena, gainontzeko euskal lurraldeekiko harremana erabakitzeko eta politika publiko guztien gainean erabakitzeko). Zehaztasun maila handiarekin definitu dugu fase politiko honetarako burujabetza estatusa honezkero; honako hauek dira bere ezaugarri nagusiak: Subjektu politikoaren aitortza, erabakitzeko eskubidearen instituzionalizazioa, harreman-molde konfederala Espainiarekin eta gainontzeko euskal lurraldeekin, botere-funtza eta berme-sistema (ikus “Autonomiatik subirautzara, estatus berri baterako oinarriak” proposamena).
- » Nazio mailako askotariko dinamika sozial, kultural, ekonomiko eta politikoak sustatzea. Mobilizazio prozesu komunitario bat gorpuztea dugu erronka, maila indibidualetik abiatu eta forma kolektibo askotari-koak hartu behar dituen; praxi komunitario bat herrigintza eta naziozaintza garaikidearen motor bilakatu behar dena, emari sortzaile berri baten iturburu. Aldaketa handiko garai konplexuak datozkigu herri eta nazio gisa, zeinean apalaldian ageri den indar komunitarioa bizkortzeko premia bizia dugu.

### **3. Instituzioen eta herri-bulkadaren arteko sinbiosia**

Esan dugunez, proiektu soberanista garaiko erronka sozial kolosalei atxiki behar zaie. Ohar gaitezen astinaldi sozial handien garaian murgildu garela, ezinbestekoa zaigu garaiko zentzu komuna ondo hautematea. Herri-bulkada berdinzaleak mahaigaineratzen dituen aldarrikapenak politika publiko konkretuetara itzuli eta materializatzen saiatzea dagokio EH Bilduri, partzialki bada ere; eta bide horretan, dependentziaren kostuak agerian jarritz, burujabetzaren aldeko pedagogia sozial zorrotza egitea.

Hamarraldi honetan egikaritu beharreko politika publikoen mapa: Zaintza-sistema publiko-komunitarioa, trantsizio ekologikoa burutzeko tresnak eta politikak, lan-harremanen esparru propioa artikulatzeko tresnak, lana eta aberastasuna banatzeko politikak, hizkuntza-politika berria, pensio sistema propioa, politika industrial aktiboa, etxebizitza eskubidea eskubide subjektibo gisa egikaritzen duten lege propioak, hezkuntza-sistema burujaberako trantsiziozko legeak, ikerketa-sistema publiko bat indartzea, etab.

Sinbiosi horretarako EH Bilduren instituziogintzak gobernantza-eredu kooperatiboa behar du ardatz, jendearen bizi-baldintza materialak hobetzeko eraginkorra eta segurtasun emalea izateaz batera.

### **4. Gizarte-esparru guztietan barneratzea**

Soberanismoak herri-erakunde eta botere-gune guztietan barneratu behar du, herria eta nazioa ahal beste esparru desberdinetatik egin ahal izateko. Horrenbestez, EH Bilduk ordezkatzen duen proiektuak influentzia gaitasuna irabazi behar du gizarte zibileko esparru askotarikoetan. Arnasa luzeko posizio-lehia, herri-burujabetzaren aldeko botere metaketa prozesua, garatzeaz ari gara.

Horrekin batera, EH Bilduk estatu seneko interlokuzio sistematikoa garatu behar du eragile ekonomiko, sozial eta kultural nagusiekin, Merezi Duzun Herria proposamenaren gaineko iritzi eta ekarpenak jaso eta gure proposamen politikoeekin eragileon ikuspegietan eragiteko bokazioz.

### **5. Udalgintza herrigilea**

Halaxe deitu diogu gure udalgintza ereduari. Ikus “Bizitzak eta lurraldeak ehuntzeko udalgintza herrigilea” dokumentua.

EH Bilduk bere politikagintzaren dimentsio eraldatzaileena esperimendu behar du udalgintza herrigilearen bidez. Izan ere, eskala lokalak administrazioaren eta komunitatearen arteko hibridazioa esperimendatzeko aukera eskaintzen du, arazo eta erronka komunei erantzuteko gaitasun kolektiboa lantzea, gizarte-kohesioan aurrera egiteko ereduak sortzea. Halaber, baliabide materialen jabetza-eredu komunitarioak garatzeko aukera ematen du, pertsonak eta komunitateak ahalduz helburu duten eredu publiko-komunalean sakonduz.

Udalgintza da ezkerreko soberanismoak zonalde urbanoetan eman beharreko jauziaren gako nagusietako bat. Euskal egitasmoaren narratibarekin sintonian baina tokian tokiko berezitasunekin koloreztatutako narratiba komunitario eraldatzaileak sortzeko gai diren egitasmo municipalista sendoak gorpuztu behar ditu EH Bilduk hiriguneetan. Euskal hiriguneak proiektu soberanistaren motor bilakatu behar ditugu.

Ildo horretan, Euskal Herriko hirigune handiak eredu arteko borrokarako gune bereziak dira. Gure ustez, giza eskalak izan behar du neurria, baita hiritan ere. Auzoetako bizitza, proiektu herrikoiak, kulturalak, kooperatiboak eta autogestionatuak, hiri berria osatu behar duten errealitateen sorburu direla argi badugu ere, garrantzitsua izango da eraldaketarako prozesuan eragile sozial, ekonomiko zein instituzional desberdinekin elkarlana bultzatu eta gauzatzea. Euskal Herriko hiriguneak udalgintza herrigile esperimendatzeko alterna-



tiba gisa ulertu behar ditugu, hirigune bakoitzaren idiosinkrasia errespetatuz. Gure egiturak eta militantzia moduak indartu behar ditugu helburu horiek lortzeko.

Beharrezkoa da EH Bilduk proiektu estrategiko propio bat edukitzea zuzeneko edo zeharkako (herri-hautagaitza pluralak) udal-ordezkaritzarik ez daukan eremu/eskualdeetan, non antolamendu-presentzia urria den, Nafarroako Erriberan, besteak beste. Hausnarketa horretan definitu beharko genuke zenbaterainoko ekintza-batasuna garatu beharko litzatekeen Euskal Herrirako baterako ikuspegi bat partekatzen duten gainerako eragile politiko eta sindikalekin, udal-eremuan zein beste hainbat eremutan: jendartean, herrietan, kulturean, etab. Estrategiak funtsezko bi alderdi sendotzea izan behar du jomugan. Lehenik eta behin, jendarteak proiektu politiko orokorrarekin bat egin dezala lortzea, proiektu integratzaile bat eginez lurraldeari eta jendarteari dagokienez. Bigarrenik, ebaluatzeko moduko ekintza-plan bat diseinatzea, helburuekin, baliabideekin eta bete beharreko egutegi batekin.

Eta horretarako beharrezkoa zaigu udalgintza herrigilearen garapenean urrats kualitatiboak ematea. COVID-19ak ekarri duen testuinguru ekonomikoak lehentasunak birpentsatzera behartzen gaitu, baliabide ekonomiko urriko garaian biziko baikara datozen urteetan. Baina, hortaz gain, pandemia honek zibilizazio krisia bizigarri egin du inoiz ez bezala, eta gure gizarte-antolamendua zenbateraino den zaugarria erakutsi du. Osasun larrialdia entsegu gisa hartu beharko genuke atzetik datorren klima larrialdiari begira. Zentzu horretan, behartuak gaude ondoko ariketa estrategikoa egitera, gutxi-asko, herri eta hirigune guztietan: Datozen joera sozioekonomiko, demografiko, klimatiko, kulturalak gogoan, zein prozesu komunitario eraldatzaile abiatu behar ditugu gaur geure herria/hirigunea komunitate erresilientea izan dadin 2030ean?

Ariketa estrategiko hau egitea ezinbestekoa zaigu, kolapsoari aurre hartu behar baitzaio. Horregatik eta ekarpen kualitatiboa egin dezakeelako Euskal Herriaren behetik gorako eraikuntzan, udalgintzari dagokion irismen estrategikoa eman behar dio EH Bilduk ondoko lau urteetan.

Udalgintza herrigilearen dokumentuan arkitektura nazional bat proposatzen da, zeinaren pieza funtsezkoena udal herrigileen konfederazioa den. Gaurko Udalbiltzak funtzio hori bere gain hartu behar duela deritzogu. Horrek orain arteko Udalbiltzaren izana eraldatzea eskatzen du. Abenduan aurkeztu zen "Geuretik sortuak" ekimena halako tresna baten potentzialaren erakusle da, kultura ez den beste hamaika arlotan ere garatu daitekeena.

## **6. Denbora gure alde**

Aurreko bost oinarri estrategikoak garatuz denborak gure alde jokatzen duela bermatu behar dugu, denbora gure helburu estrategikoen aldeko eta Estatuaren higadurarako aldagaia izan dadila. Hori bermatzeko gai baldin bagara lasaitasun estrategikoarekin jokatu behar dugu. Ez dago urrezko golik, ezin gara E egun baten zain bizi, ez dago momentu fundazionalik; utz dezagun pentsamendu eskema hori alde batera. Horren aldean, botere metaketa helburu duen logika trantsizionala garatu behar dugu.

Aukera leihoak izan izango dira. Esana dugu astinaldi sozial handiko garaian murgildu garela zeinean proiektu soberanistak gaurkotasun erabatekoa duen; eta Estatuaren krisi egiturazkoa are sakonagoa egingo dela ere aurreikus dezakegu. Izango diren aukera leihoak probesteko inbertsiorik onena aurreko bost oinarri estrategikoetan deskribatzen den herri-prozesu autozentratua ahalbait gehien eta sakonen garatzea da.

Estatuarekiko dialektikari dagokionez:

### **7. Aldebakartasuna eta aldebigotasuna**

Ez dago dikotomiarik honetan. Gure estrategia ezin da aldebigotasunean oinarritu, horrek giltza estatuen eskuetan uztea esan nahiko lukeelako; baina ezta aldebakartasun hutsean ere. Beti ere euskal gizartearen baitan hegemonia erdiestea helburu, hala Estatu deslegitimatze nola nazioartean konplizitatea irabazteko, behar-beharrezkoa da soberanismoak gatazka politikoa elkarrizketa eta negoziazio bidez konpontzeko borondatea agertzea, eta hartarako proposamen konkretuak luzatzea behin eta berriro.

Bestalde, akordioak herri-prozesu autozentratuaren mesederako izan daitezke, eta hala izan daitezen bilatu behar dugu: aldebakartasunaren mesederako aldebigotasuna. Ongi kudeatutako akordioak 78ko erregimena erasan eta Estatuaren krisia areagotzeko balio dezakete, oinarri soberanista zabaldu eta bere eraginkortasuna areagotzeko bitartekoa izan daitezke, edota konfrontazio demokratikorako bide berriak irekitzeko giltza ere bai.

### **8. Mobilizazioa eta polarizazioa**

Gutxieneko polarizazioa ezinbestekoa da hegemonia soberanistaren lehiarako. Beti ere uneak, gaiak eta moldeak ondo aukeratuta, EH Bilduk gizarte-mobilizatorako mekanismoak sustatu behar ditu, Estatuaren posizioa baldintzatu eta soberanismoaren aldeko pedagogia soziala egiteko baliagarria den polarizazioa helburu. Polarizazio-ardatzak ondo hautatzeko gako izango da euskal gizartearen baitako joerak ondo hautematea, gizartearen ezagutza sakona izatea. Zentzu horretan, EH Bilduri badagokio ardatz horiek identifikatu eta garaiko borroka izan daitezkeenak (hirugarren oinarri estrategikoan aipatzen den politika publikoen mapa) indarrez plazaratzea, eta herri-mugimenduarekin elkar-ekintza bilatzea.

Euskal Herriaren aitortza erdiestea helburu duten nazioarteko harremanei dagokienez:

### **9. Kataluniarekiko eta estaturik gabeko nazioekin artikulazioa eta batera jotzea**

Aitortza eta errespetua aldarrikatzen duten bina gehiengo demokratiko zabal paratzea Madrilen aurrean eta aunitz Bruselaren aurrean, horixe da une historiko honetan bi herriotako burujabetza prozesuen aurrerabidea, eta are arrakasta, ahalbidera dezakeen aldagaia nagusietakoa. 2019ko udazkenean sinatutako Llotja de Mar adierazpena eta Europako estaturik gabeko gainontzeko nazioekin jorratutako bidea dira ibili beharrekoak.

### **10. Diplomazia**

Gehiengoak artikulatzea bezain garrantzitsua da nazioartean konplizitateak eta are babesak erdiestea; edo, gutxienean-gutxienez, aurkakotasun eta etsaitasun handirik ez izatea. Diplomazia eta nazioarteko harremanen dinamika etengabea eskatzen du horrek. Baita hainbat estatuarekin ere, ezaugarri edota interes beretsuak dituzten aliatuak bilatze aldera.

## 5. Burujabetzarako trantsizioa

---

Euskal Herriak autonomismotik burujabetzarako bidea egingo badu, ezkerreko soberanismoak arnasa luzeko estrategia bat garatu beharko du, pazientzia estrategikoaz eta jarraitutasunez. Aurreko atalean burujabetze prozesuaren kartografia gisa aurkeztu dugunak estrategia horren gako nagusiak marrazten dituelakoan gaude.

Eta arnasa luzeko estrategia batek eskutik behar du unean uneko agertoki eta gertakarien kudeaketa on bat. Jaki-na denez, taktikarik gabe ez baitago strategiaren garapenik. Eta, esaten da, politikan, koiuntura azterketa zuzena egitea dela lehen-lehenengo gauza. Zentzu horretan, esan dezagun beste behin: gaur, autonomismotik burujabetzarako igarobidea azkartzeko ahalegina 78ko erregimenaren krisiaren koiuntura historikoak blaitzen du. Koiuntura hau ondo atzeman eta maneiatzea gakoa izango da bidea urratzeko heldulekuen bilaketan.

Koiuntura historikoa ondo atzeman, eta beti ere, bi printzipio gidariren arabera jokatu. Lehena, kartografiaren seigarren puntuan aipatu duguna eta azpimarra merezi duena: Autonomismotik burujabetzarako igarobidea continuum bat da eskailera bat baino; trantsizio bat beraz, logika prozesuala barneratzea eskatzen diguna. Ez dago E egunik, boterea metatu behar da, hala burujabetza materialari nola burujabetza formalari dagokionez. Azken honi gagozkiolarik, estatu egiturak sendotu eta falta zaizkigunak eskuratze bidean euskalerrirutzen dugun botere formal bakoitza aurrerapausua izango da burujabetzarako trantsizioan.

Bigarrena, lehenago ere aipatu dugun pragmatismo estrategikoa: helburuetara hurbiltzen gaituen jokamolde politikoa, esentzialismoz hustua. Jarrera eraldatzaileak sistema soziopolitikoaren eraldaketa erradikala gauzatzen duen praxia eskatzen du, ez formula bakar batez dena aldatuko duen alkimiaren bat. Utopiaren eta pragmatismoaren arteko tentsioa da pragmatismo estrategikoak kudeatu behar duena, burujabetza praktikoki, efektiboki eta materialki eskuratzeko bideak esploratuz.

Argi dugu iparra eta badugu estrategia autozentratu bat, burujabetze prozesuan aurrera eginez haustura demokratikorako baldintzak sortzera bideratua. Sarri darabilguna baino pentsamendu konplexuagoa behar dugu, dialektikoa. Historia hurbilak erakusten digu, adibidez, gaurko akordioak biharko konfrontazio demokratikorako giltza izan daitezkeela. Helburu argiak, estrategia sendoa eta inteligentzia taktikoa joko-zelai lokaztuan aritu ahal izateko. Eta geure buruarenganako konfidantza.

## 5.1 Joko taktikoa herri-prozesu autozentratuaren mesedera

Pragmatismo estrategikoak malgutasun handia eskatzen du, beti ere inmediateismoan erori gabe, hots, ikuspegi estrategikoa kolokan jarri gabe. Ematen dugun urrats taktiko bakoitzak herri-prozesu autozentratuaren mesedera behar du. Horixe da aldi oro ebaluatu beharrekoa: urrats bakoitzak non eta nola uzten gaituen herri-prozesu autozentratuari dagokionez, zein modutan laguntzen digun bidea egiten.

Joko taktikoari dagokionez, hiru dira landu beharreko esparru nagusiak. Lehena: nola bizkortu burujabetza formalaren aldeko pultsu politikoa Euskal Herrian? Zein ekimen jar ditzakegu martxan estatus politikoen eztabaidak agenda politikoa lehenera eramateko Nafarroa Garaian eta Erkidego Autonomoan? Nola apurtu inertziak? Nola gainditu blokeoak? Eta, batez ere, nola konektatu eztabaida hau gizartearekin?

Bigarrena espainiar eskalako esku-hartze politikoa begirakoa da. Eskala horretako politikagintzan nola parte hartzen dugun bainoago zertarako da pentsatu beharrekoa; zeri erantzuten dion testuinguru historiko honetan gure parte-hartzeak, zein helburu ditugun eta zer-nolako ekimen politikoa elikatzen dituen helburu horiek.

78ko erregimenaren krisi sistemikoaren testuinguru honetan bistakoa da kontraerreformaren eta hautu "berdinzale-demokratizatzailea"ren\*\* arteko pultsu politiko sakona dagoela Estatuaren baitan, alderdi-sistemaz haragoko estatu-aparatu eta botere faktikoak barnebiltzen dituen. Egoera ezegonkorra da erabat; ezegonkortasun hori da, hain zuzen, estatu-krisiaren adierazleetako bat.

\*\* Podemosek hautu demokratizatzailea ordezkatzeko duela esan dezakegu. Hots, neoliberalismoari kontrajartzen zaion proiektu politiko bat duela buruan eta Estatuaren izaera plurinazionala aintzat hartuko lukeen estatu erreforma baten alde egingo lukeela momentua iritsita. Bestalde, PSOEek gidatzen duen gobernu-konfigurazioa, gaur, ez da establishmentaren gustuko hautua. Ikusteke dago PSOEek zein norabide hartuko duen hurrengo hilabeteetan baina, gaur, agerikoa da kontraerreformaren aldeko indarrek eta establishmenteko sektore garrantzitsuek gobernu-konfigurazio hau indargabetu nahi dutela.

Koiuntura historiko honetan ezkerreko soberanismoak hautu berdinzale-demokratizatzailea lideratu behar du, espainiar eskala errefusatzeko ez duten euskal herritarren aurrean behin eta berriro frogatuz egiazko hautu berdinzale-eraldatzaile-errepublikazalea soberanismoak ordezkatzeko duela. Eta Estatuaren balizko erreforma demokratizatzaile posible bakarra plurinazionaltasuna onartzen duen estatu ereduari ateak zabaltzen dizkiona dela. Eta hautu hori ukatzen duena erregimena bera dela, hots, Estatuaren edozelako demokratizazio prozesuren oztopo nagusia Estatu bera dela. Nazio desberdinetako indar soberanistok posizio politiko hau eraginkorki garatzen dugun heinean estatu-krisia sakonagoa egingo dela aurreikus dezakegu.

Landu beharreko hirugarren esparrua estatu erreforma irekitzen deneko balizko eskenatokiari begirakoa da. Etor-kizuneko eskenatoki posibleetako batean, Espainiako eliteek, dena delako arrazoiak medio, Estatuaren erreforma saihetsezina dela ondorioztatzen dute, eta erreforma prozesua martxan jartzen da. Eztabaida dezakegu zein den balizko eskenatoki hau errealtate bihurtzeko probabilitatea, baina, iritziak iritzi, afera da gerta daitekeela eta geure buruak prest izan behar ditugula halako egoera bati aurre egiteko. Izan ere, estatu erreforma batek lurralde artikulazioaren eztabaida (hots, erabakitzeko eskubidearen instituzionalizazioarena) irekiko luke alde edo moldez.

Definitua dugu jada halako eskenatokian mahaigaineratuko genukeen proposamen politikoa: antzerako ezaugarrietako burujabetza estatusak Nafarroa Garaia zein Erkidego Autonomorako (ikus bosgarren atalean burujabetze prozesuaren kartografiaren bigarren oinarria). Proposamen honek biltzen duen eredu konfederalak soluziobide juridiko-politiko demokratiko bat emango lioke Estatuaren izaera plurinazionalari, eta zentzu horretan, espainiar eskalako sektore aurrerakoiak interpelatzeko aukera emango liguke eztabaida politikoan.

Honako printzipio gidariak markatuko luke EH Bilduren posizio politikoa halako irekidura eskenatoki batean: burujabetza estatusaren azpitik legozkeen proposamen politikoak ez-nahikoak lirateke Euskal Herriaren garapen sozial, ekonomiko eta kultural desiragarriak. Baina euskalerriratu litzatekeen botere formal bakoitza berreskuratu burujabetza puska bat litzateke, aurrerapausu bat burujabetzarako trantsizioan. Ez diegu geure printzipioei uko egingo, ez eta botere metaketa prozesuan eman daitekeen ezein aurrerapausori ere. Gure posizio politikoa botere metaketa prozesuan emango diren urratsen arabera izango da beti ere. Lehenago esan bezala hauxe da aldi oro ebaluatu beharrekoa: urrats bakoitzak non eta nola uzten gaituen herri-prozesu autozentratuari dagokionez, zein modutan laguntzen digun bidea egiten.

## **5.2 Aliantza-politika**

Autonomismotik burujabetzarako trantsizioak tresna politiko bat behar du bere mesedera herri-gehiengoak artikulatzeko: aliantza-politika, alegia. Aliantzek artikulazio soziala sustatu behar dute (hegemonia soberanista-berdinzalea) euskal eskalan boterea metatzea ahalbidetuko duten edukien inguruan, botere metaketa hori egiturazko aldaketa sozialak bideratzeko ahalduz kolektibo/herritar gisa ulertuz.

Bi izan daitezke akordio maila horiek erdietsi eta garatzeko bideak:

- » Akordio taktiko-estrategikoak askotariko indar politiko eta sozialekin.
- » EH Bilduk euskal eskalako proiektu demokratikoan interesa agertzen duten sektore sozialak “fronte zabal” batean biltzeko izan dezakeen gaitasuna.

Eta honako hauek lirateke aliantza-politikaren gakoak:

- » Geometria aldakorrek behar du, aukera eta behar askotarikoei erantzun ahal izateko.
- » Aliantza-politika eskala nazionalaren prisma baten antzeko behar da. Izan ere, ezkerreko soberanismoak askotariko aliantza emankorrak garatu ditu azken urteetan (baita gaur egun ere) Euskal Herriaren luze-zabalean. Prozesu horiek ikasgai franko utzi dituzte aliantza-politika arrakastatsu batek eskatzen duen kultura politikoari dagokionez.
- » Naturalitatearekin bizi behar dugu une berean aliantza desberdinak garatzea (kontrajarriak izanik ere). Horretarako, aliantzak desentzualizatu behar ditugu, helburuen arabera ulertu, eta ez irizpide moralen arabera. Ikuspegi maquiavelikoa landu behar dugu, bere zentzurik onenean: aliantza-politika egokia helburuetara hurbiltzen gaituena da, ez confort gunean edo purutasunean bermatzen gaituena.
- » Aliantza-politika egokiak ausarta izan behar du, kontraesanak sortuz, tentsioak ekarriz, horixe baita ohiko esparruetatik ateratzean gertatzen dena. Aliantza-politika emankorra gauzatzeko arriskuak hartu behar dira, bestela ezinezkoa izango baita egungo indar-harremanak aldatzea.
- » Behar dugun aliantza-politikak subjektu desberdinak hartu behar ditu aintzat: alderdiak, sindikatuak, herri-mugimenduak, sektoreak, bestelako eragileak eta abar.

## 6. Azken hitza

---

Azken lau urteek duela hamarraldi bat hasitako bidea kontsolidatu dutelakoan gaude. Ondorioz, gora-beheratsua baina biziki emankorra izan den ibilbidearen ostean, EH Bildu errealitate politiko-organizatibo egonkortua da egun hego Euskal Herrian. Ezkerrak sarri ahazten dituen oinarritzko bi printzipio ondo gogoan hartuz egin dugu bide hau. Bat: Askapen borrokan elkartasuna norberaren hautuaren aldeko defentsa sektarioaren aurrean. Askotan errepi-katu dugunez, batu eta ez kendu, biderkatu eta ez zatitu. Bi: funtzionalak eta eraginkorrak izan nahia herritarren lan- eta bizi-baldintzen hobekuntzan eta euskal nazioaren eraikuntzan.

Bide onean goaz baina garai konplexu honek eta herri hau askatasunera eramateko gure anbizioak jauzi bat ematea eskatzen digute. Horixe da, hain zuzen, kongresu honen helburu sakona: arnasberritu, datozen lau urteetako erronkak fokuratu eta jauzi egitea. Kontsolidazio fasea betetzat emanda, jauzi kualitatibo bat saiatzeko momentua iritsi zaigu. EH Bilduren kongresu honen ekarpena bi planotan laburbildu daiteke:

1. Geure estrategia politikoa doitu dugu, Euskal Errepublika helburu, botere metaketa prozesuan oinarritutako ildo politikoan sakonduz.
2. Garaiko erronka kolosalei herri gisa aurre egiteko euskal gizartearekin elkarlanean lantzeko Merezi Duzun Herria proposamena aurkeztu dugu.

Instituzio gorenak gobernatzeko prestatu behar gara, garai historiko honi pultsua hartu eta herritarrekin elkarlanean erantzun-aterabide konprekuak mahaigaineratzen dituen erreferentzia izateko. Sinetsita gaude beharrezkoa dela EH Bilduk hamarraldi honetan instituzio gorenak gobernatzea, argi luzedun eraldaketarako gobernuak osatu ditzagun, burujabetze prozesuan aurrera egiteko gobernugintza gara dadin. Argi izanik, beti ere, boterea lehiatzea gehiengo elektoralak erdiestea baino kontu sakonagoa dela; Euskal Herriaren luze-zabalean askotariko botere eta bertebrazio guneak lehiatzea ere badela, ondoren agenda eraldatzailearekin eta herri sektoreen beharrekin uztartzeko. Eta horretarako, hain zuzen, jauzi bat eman behar dugu geure gaitasun propositiboan eta perfil instituzionalean, hitzaurrean aipatzen diren hiru tenporalitateen arabera antolatuz geure ekimen politikoa.

Estrategia lerroak eta joko taktikorako zuzentzarauak finkatuta, eta datozen lau urteetako erronkak definituta, EH Bilduren potentzial osoa askatzeko zeregin behinena sendotze organizatiboa da. Errealitate politiko-organizatibo egonkortua izatetik Euskal Herriaren burujabetze prozesua traxzionatzeko gai den gorputz organizatiboa izatera

bada tarte, bada zer landu eta zer garatu. Ponentzia organizatiboari dagokio hori.

Bukatzeko, pandemiaren lehen larroan dabiltzan alkate eta zinegotziak egiten ari diren lan eskerga gorai patuz bukatu nahi dugu. Ekinez frogatu baitute komunitatearen zaintzara emanak garen indar politikoa garela; badagoela bestelako politikagintza bat bidea urratzen ari dena. Pandemia honek izango du alde on bat: herrigintzan zailduta-ko belaunaldi militante berri bat ekarriko du, etorkizuna marraztera deitua dagoena. Bejondeizuela!

Erronka kolosalak ditugu parez pare, garai nahasi eta konplexuak bizitzea tokatu zaigu. Baina garai zailetan ondutako tradizio politikoak jaso ditugu oinordetzan eta kultura politiko berri bat eraiki, etorkizun ziurgabeari soseguz eta eraldaketa minez begiratzen diona. Mundu berri baten ametsak hor dirau, eta Euskal Herri askearenak ere bai.

Izan dadila kongresu hau mugarri berri bat askatasunaren bide eder honetan.

**Euskal Herrian, 2021eko maiatzean.**



hamar urte baino ez.